



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza osoak 2025eko martxoaren 11n egindako bilkuran honako hau dioen erabakia hartu zuela:

AZPEITIKO HAPO-REN 31.TRUKUTXO H.E.RAKO PLAN PARTZIALAREN BEHIN BETIKO ONARPENA (2023PLAN0003).

Aurrekariak:

Hierros Servando S.L.U.ren izenean Aitor Fernández Guerguek 2023ko uztailaren 7ko idatziaren bidez Azpeitiko HAPOko Trukutxo 31 hirigintza-eremurako ingurumen-ebaluazioa hasteko eskaera aurkeztu zuen, Plan Partzialaren zirriborroarekin eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoarekin batera.

Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legearen baitan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak 2024ko urtarrilaren 8ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-ondorioetarako soilik, Azpeitiko 31. Trukutxo hirigintza-eremuaren Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua onartu zuen.

Irismen dokumentua kontuan hartuta, sustatzaileak 2024ko maiatzaren 28ko idatziaren bidez Azpeitiko HAPOko Trukutxo 31 hirigintza-eremurako Plan Partziala (2024 maiatza) eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa aurkeztu zituen. Dokumentuak Santiago Peñalba Garmendia arkitektoaren zuzendaritza teknikoarekin idatzi ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko ekainaren 4an egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AU 31 "Trukutxo" hirigintza-eremurako Plan Partziala (maiatza 2024) eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa.

Plan Partzialaren helburua antolamendu xehatuaren araubidea zehaztea da, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritakoa betez. Plan horrek eremuko lursailak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen ditu, eta batez ere industria-erabilerrako erabiliko dira.

Eremuaren azalera 259.786 m²-koa da, eta udalerriko hirigune nagusiaren iparraldean dago, Lasao auzoan, Anardi eta Badiolegi artean.

Lurralde-antolamenduko planak eta lurralde-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27. artikulua dioena jarraituz, hartutako akordioa, hasierako dokumentu teknikoa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurreko erakustaldian jarri ziren berrogeita bost laneguneko epean (45) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko ekainaren 12an -113



Azpeitiko Udala

zenbakia-, El Diario Vasco eta Gara egunkarietan 2024ko ekainaren 14an, eta baita Udalaren Web orrian eta Iragarki taulan ere, 2024ko ekainaren 7an.

Jendaurreko epealdia 2024ko abuztuaren 20an amaitu zen, eta denbora horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Bestalde, beren eskumen sektorialengatik, eraginpeko administrazio publikoei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak irismen-dokumentuan identifikatutako administrazio eta entitateei txostenak eskatu zitzaizkien (espedientean jaso dira emandako txostenak)

Modu berean, azaroaren 19ko 79/2019 Dekretuaren baitan Hirigintza Planen eta Proiektu alorrean Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko batzordeak (ELE BATZORDEA) hizkuntza inpaktuaren azterlana egin zuen. Txostenak dioenez hizkuntza inpaktuaren azterlana egin beharrik ez dago.

-Halaber, dokumentuan Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa den otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotako neurriak hartu dira planean genero ikuspegia txertatzeko.

Prozeduraren fase hori amaitu eta informazio publikoaren eta kontsulten izapideen emaitzak kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko urriaren 8an egindako bilkuran espedienteari behin behineko onarpena eman zion, eta ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari.

Alkatetzak 2024ko azaroaren 22an emandako Ebazpenaren bidez Zuzendaritzak 2024ko azaroaren 11ko idatziaren bidez Udalari egindako errekerimendua osatu zen. Hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren txostena erantsi zen.

Gipuzkoako Foru aldundiaren Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentuak Plan Partzialaren inguruan emandako txostenaren edukia bat dator alde zuzenetik ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua osatzeko fasean administrazio berak emandako txostenarekin.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak 2025eko otsailaren 12an Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egin ondoren, sustatzaileak Plan Partzialaren Testu Bateratua aurkeztu du Udal honetan. Testu horretan espedientearen baitan eman diren txostenak eta Ingurumen Zuzendaritzak ezarritako baldintzak jaso dira.

Jarraitu den prozedurari dagokionez Udalaren idazkariak aldeko txostena egin du espedientea behin betiko izaeraz onartzeko. Akordioa hartzeko eskumena



Azpeitiko Udala

Udalbatzarena izango da, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1c) artikulua arabera.

Eta Kontuan izanik gaia Hirigintza eta Estrategia Batzorde berriemailean irizpidetu dela, Udalbatza Osoak aho batez, ONARTU DU:

Lehen: Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 31 TRUKUTXO H.E. eremurako Plan Partzialari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari **BEHIN BETIKO onarpena** ematea. talde teknikoak otsaila 2025ean egindako **TESTU BATEGINA** kontuan izanik.

Testu Bateraginak, bere baitan jaso ditu azalpen atalean azaldutako zehaztapenak.

Plan Partzialaren edukia:

a) Dokumentu teknikoak:

Lehen dokumentua: MEMORIA (lau dokumentu ditu bere baitan: planaren ordenazioa arrazoitzen duena, Ingurumen Ebaluazioa (aparteko dokumentuan), hizkuntzari buruzko ebaluazioa eta generoaren inpaktuaren ebaluazioa.

Bigarren dokumentua: HIRIGINTZA arauak

Hirugarren dokumentua: Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideak.

Laugarren dokumentua: Azterketa ekonomikoa.

Bosgarren dokumentua: Exekuzio Laburpena.

Seigarren dokumentua: Planoak.

b) Ingurumen dokumentu estrategikoa.

Bigarrena: Hirigintza dokumentua behin betiko onartzeak berekin dakar era guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko etenaldia bertan behera uztea, Planean aurreikusitako zehaztapen berriek orain arte indarrean egon den hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuan.

Plan Partziala indarrean jartzeko, aipatutako 2/2006 Legearen, 2006ko ekainaren 30eko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Legearen, 89. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa da, behin betiko onarpenaren erabakia hartzeaz gain, hirigintzako arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Behin betiko onarpenaren erabakia, gainera, lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratu beharko da

Edonola ere, aurretik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua xedatzen duenez, behin betiko onarpenaren xede den



Azpeitiko Udala

Testu Bategina Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistrora bidaliko da gordailatzeko.

Plan Partzialaren dokumentuaren edukia Azpeitiko Udalaren web orriko Hirigintza atalean egongo da ikusgai: www.azpeitia.eus

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, Bilbon, bi hilabeteko epean, erabakia azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eta hori horrela jasota gera dadin, eta Alkate Udalburuaren oniritzia izanik, ziurtagiri hau eman dut Azpeitian, sinadura atalean adierazitako egunean.

O.E.
ALKATEA,



Azpeitiko Udala

Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.

CERTIFICO: que el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 11 de marzo de 2025 adoptó el siguiente acuerdo:

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN PARCIAL DEL A.U. 31 TRUKUTXO DEL PGOU DE AZPEITIA (2023PLAN0003).

Antecedentes:

En nombre de Hierros Servando S.L.U. Aitor Fernández Guergué mediante escrito de fecha 7 de julio de 2023 presentó solicitud de inicio de la evaluación ambiental del ámbito urbanístico Trukutxo 31 del PGOU de Azpeitia, junto con el borrador del Plan Parcial y el Documento Ambiental Estratégico.

En el marco de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación, la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco aprobó mediante Resolución de 8 de enero de 2024, a los solos efectos ambientales, el documento de alcance de la evaluación ambiental estratégica del Plan Parcial del Ámbito Urbanístico 31 Trukutxo en Azpeitia.

Teniendo en cuenta el documento de alcance, el promotor mediante escrito de fecha 28 de mayo de 2024 presenta el Plan Parcial (mayo 2024) y el Documento Ambiental Estratégico para el ámbito urbanístico Trukutxo 31 del PGOU de Azpeitia. Los documentos fueron redactados con la dirección técnica del arquitecto Santiago Peñalba Garmendia.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 4 de junio de 2024, aprobó inicialmente el Plan Parcial (mayo 2024) y el Documento Ambiental Estratégico para el ámbito urbanístico AU 31 "Trukutxo" del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia.

El Plan Parcial tiene por objeto determinar el régimen de ordenación pormenorizada, en cumplimiento de lo establecido en el Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia. Este plan clasifica los terrenos del ámbito como suelo urbanizable sectorizado y se destinarán principalmente a uso industrial.

La superficie del ámbito es de 259.786 m² y se localiza al norte del núcleo principal del municipio, en el barrio de Lasao, entre Anardi y Badiolegi.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, por el que se regulan los procedimientos para la aprobación de los Planes de Ordenación Territorial e Instrumentos de Ordenación Territorial, el acuerdo adoptado, el documento técnico inicial y el Estudio Ambiental Estratégico fueron sometidos a información pública durante el plazo de cuarenta y cinco días hábiles (45) en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 113 de 12 de junio de 2024, en los diarios El Diario Vasco y Gara de 14 de junio de 2024, así como en la página Web y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento el 7 de junio de 2024.



Azpeitiko Udala

El plazo de información pública finalizó el 20 de agosto de 2024, sin que durante el mismo se presentaran alegaciones.

Por otra parte, por razón de sus competencias sectoriales, se solicitó informe a las administraciones públicas afectadas y a las administraciones y entidades identificadas en el documento de alcance por la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco (se incorporan al expediente los informes emitidos)

Asimismo, en el marco del Decreto 79/2019, de 19 de noviembre, la Comisión de Evaluación de Impacto Lingüístico de los Planes y Proyectos Urbanísticos (ELE BATZORDEA) realizó un estudio de impacto lingüístico. El informe señala que no es necesario realizar un estudio de impacto lingüístico.

-Asimismo, en el documento se han adoptado las medidas recogidas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres para incorporar la perspectiva de género en el plan.

Finalizada esta fase del procedimiento y teniendo en cuenta el resultado de los trámites de información pública y consultas, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 8 de octubre de 2024, aprobó provisionalmente el expediente y formuló una solicitud de declaración ambiental estratégica ante la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

Mediante Resolución de Alcaldía de 22 de noviembre de 2024 se completó el requerimiento de la Dirección al Ayuntamiento mediante escrito de 11 de noviembre de 2024. Se adjunta informe de la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El contenido del informe emitido por el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con el Plan Parcial se ajusta al informe emitido previamente por la misma Administración en la fase de elaboración del documento de alcance de la evaluación ambiental estratégica.

Tras la Declaración Ambiental Estratégica del Plan Parcial realizada por la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco el 12 de febrero de 2025, el promotor ha presentado en este Ayuntamiento el Texto Refundido del Plan Parcial. En dicho texto se recogen los informes emitidos en el marco del expediente y las condiciones impuestas por la Dirección de Medio Ambiente.

En cuanto al procedimiento seguido, la Secretaria del Ayuntamiento informa favorablemente para la aprobación definitiva del expediente. La competencia para adoptar el acuerdo será del Pleno de acuerdo con el artículo 22.1c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Y teniendo en cuenta que el asunto ha sido sometido a criterio de la Comisión Informativa de Urbanismo y Estrategia, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, ACUERDA:

Primero:



Azpeitiko Udala

Aprobación DEFINITIVA del Plan Parcial y del Estudio Ambiental Estratégico del A.U. 31 TRUKUTXO del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia, teniendo en cuenta el **TEXTO REFUNDIDO** elaborado por el equipo técnico en febrero 2025.

Contenido del Plan Parcial:

a) Documento técnico:

Primer documento: MEMORIA (que incluye cuatro documentos: el que justifica la ordenación del plan, la Evaluación Ambiental (en documento aparte), la evaluación lingüística y la evaluación de impacto de género.

Segundo documento: Normas URBANÍSTICAS

Tercer documento: Directrices para la organización y gestión de la ejecución.

Cuarto documento: Estudio económico.

Quinto documento: Resumen Ejecutivo.

Sexto documento: Planos.

b) Documento ambiental estratégico.

Segundo: La aprobación definitiva del documento urbanístico implica la suspensión de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito en el que las nuevas determinaciones previstas en el Plan suponen una modificación del régimen urbanístico hasta ahora vigente.

La entrada en vigor del Plan Parcial, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la citada Ley 2/2006, de 30 de junio, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, exige, además de la adopción del acuerdo de aprobación definitiva, la publicación de las normas urbanísticas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. El acuerdo de aprobación definitiva deberá ser publicado, además, en el diario o diarios de mayor difusión del Territorio Histórico

En cualquier caso, con carácter previo, el artículo 89.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, dispone que el Texto Refundido objeto de aprobación definitiva se remitirá para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El contenido del documento del Plan Parcial estará disponible en el apartado de Urbanismo de la página web del Ayuntamiento de Azpeitia: www.azpeitia.eus

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su última publicación.

Y para que así conste, y con el visto bueno del Sra. Alcaldesa Presidenta, expido la presente certificación en Azpeitia, en la fecha indicada en el apartado de firmas.

V.B.

LA ALCALDESA,



Azpeitiko Udala



EKS | CSV: SINA2a88855e-86f3-4690-b200-038da460eb08

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01810>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01810>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Trukutxo Plan Partziala behin betiko onarpenaren zertifikatua elebitan.odt
CSV/EKS:	SINA2a88855e-86f3-4690-b200-038da460eb08